

11.3. ZENTZUMENEN desGAITASUNA: ENTZUMENA



Kirol anitza FGDA

1. DEFINIZIOA

Ulertzen da **entzumen desGAITASUN** modura "forma akustikoak hautemateko gaitasunaren galera edo gabezia ezaugarri duen zentzumenezko nahasmendua, izan entzute-organoan izandako alterazio baten ondorioz edo entzumen-bideko alterazio baten ondorioz" (Rios, 2003).

OME erakundearen arabera, haxe da gortasunaren definizioa: **entzumen-galera pairatzen duen pertsona (ez da gai)** entzumeneren zentzumena normala duen, hau da, bi belarritan entzumen-ataria 25 dB edo handiagokoa duen, pertsona batek bezala entzuteko. **Entzumen-galera arina, moderatua, larria edo sakona izan daiteke.** Belarri batean edo bitan eragiten du eta elkarritzeta bat edo soinu indartsuak entzuteko zailtasunak dakartza.

Herentziazko gaitza izan daiteke edo gaixotasun, traumatismo, zarataren eraginpean denbora asko egotearen edo entzumen-nerbiorako bortitzak diren sendagaien ondorio izan daiteke.

Diseinatzen diren espazioek entzumena erabiltzeko gaitasunik ez duten pertsonentzat zenbait irtenbide eman behar dituzte.

Pertsona Gorren Estatuko Konfederazioak (CNSE) esaten duenaren arabera: **"Pertsona gorrak modu ezberdinetan komunikatzen dira.** Zenbaitentzat zeinu-hizkuntza espainiarra edo katalana da lehendabiziko hizkuntza, beste batzuentzat aldiz, ahozko hizkuntza da; batzuek bi hizkuntzak menderatzen dituzte (zeinu bidezkoa eta ahozkoa) eta eroso sentitzen dira biek testuinguru eta egoeren arabera. Beste batzuen kasuan, ordea, biatiko bat lehenesten da edo bakarra baino ez dute erabiltzen."

Zeinu-hizkuntzaren erabiltzaile diren pertsona gorren artean batzuek haurtzaroan ikasi zuten zeinuak egiten eta beste batzuek jadanik helduarroan; **batzuek audiofono edo kokleako inplantak erabiltzen dituzte** eta, horien artean, badira zeinu-hizkuntza erabiltzen dutenak, eta beste batzuek ez dute erabiltzen; gainera, talde horren barnean, badira entzumenerako laguntza teknikoekin inguruan duten munduko partaide izateko aski dela uste dutenak eta, beste batzuen arabera, aldiz, horiek beharrezkoak izanik ere, ez dira aski.

Halaber, badira, hezkuntza-sistema ez inklusibo bat jasotzearen ondorioz, idatzizko testuak espresatu eta ulertzeko zailtasunak dituzten pertsonak."



2. SAILKAPENA

Entzute-gaitasunaren arabera, hauek egon daitezke:

- **Gortasun partziala:** Pertsonak entzute-gaitasun urria duenean ematen da (hipoakusia) eta laguntza teknikoak erabil ditzakete entzute-ulermenterako gaitasuna areagotzeko.
- **Gortasun oso edo erabatekoa:** Pertsona kalteak deus entzuteko gaitasunik ez duenean ematen da. Kasu honetan ere laguntza teknikoak erabil daitezke, esate baterako: audiofonoak edota kokleako implanteak. Hori, ordea, pertsona bakoitzaren ezaugarrien arabera izango da.

Gortasuna, era berean, **zentzumen-zelulen endekapenagatik ere ematen da**; horrek azaltzen du zergatik helduek ezin dituzten entzun adin txikiagoko beste pertsona batzuek entzun ditzaketen zenbait frekuentzia.

- **Lesioaren kokapenaren arabera**
 - Entzumen galera kondukzioko edo transmisiokoa
 - Zentzumen erako entzumen-galerak, neurosensoriala edo pertzepziokoa
 - Entzumen-galera mistoa
 - Entzumen-galera zentrala

- **Entzumen-galeraren graduaren arabera**

Entzumen mota	Entzumen-ataria
• Normala	< 20 dB
• Gabezia arina	20 - 40 dB
• Gabezia ertaina	40 - 70 dB
• Gabezia ertaina	70 - 90 dB
• Gabezia sakona	> 90 dB

Erabateko galera edo kofosian bi mota daude:

- Entzumen-galeraren arrazoiaren arabera
- Entzumen-galera hasten den adinaren arabera

3. ENTZUMEN desGAITASUN MOTAK

Entzumen desGAITASUNA agertzen den unea **erabakigarria da norbanakoaren lengoaiaren garapenari so**, beraz, 3 multzo bereiz daitezke:

- **Pre-lokutiboak:** baldin eta desGAITASUNA ahozko lengoaia baitaratu aurretik iritsi bada (2 urte bete aurretik).
- **Perilokutiboak:** baldin eta desGAITASUNA ahozko lengoaia baitaratzeko prozesuan iritsi bada (2-3 urte).
- **Post-lokutiboak:** baldin eta desGAITASUNA ahozko lengoaia baitaratu ondoren iritsi bada (3 edo 5 urteko adinaren ondotik).

KONTUAN IZAN BEHAR DUGU
ESKU-HARTZEAN AINTZAT HARTU
BEHAR DUGULA BETI ANIZTASUNA
ETA ONARTU EGIN BEHAR DITUGU
GORTASUN BAT PAIRATZEN DUTEN
PERTSONEN EZBERDINTASUNAK
ETA ERRESPETATU EGIN BEHAR DITUGU
EDOZEIN PERTSONAREKIN
EGINGO GENUKEEN BEZALAXE

Halaber, garrantzitsua da bi printzipio argi izatea:

- Entzumen-gabeziarekin batera ager daitezkeen balizko inplikazioen konplexutasunak.
- Entzumen-urritasuna ez da erabiliko aurretiazko epairako elementu bezala berau pairatzen duen kolektibo guztiarekin.

4. JARDUERARAKO GOMENDIOAK

Ikuspuntu indibidual batetik, **entzumen-mugek pertsonari desGAITASUNA** eragin diezaioke, **komunikazioari, harreman pertsonalari eta komunitateko funtzionamenduari dagokienez zailtasunak izan ditzakeelako**. Horrek ez du esanahi bere garapen pertsonala ezin denik populazio orokor-rrarekin alderatuz normaltasunez garatu, dituen zailtasunak orekatu eta trebetasunak sendotzeko laguntza eta baliabideak ematen bazaizkio (Luque. D eta Luque-Rojas. M 2013).

Horrekin bat etorritz, aipa daitezke **bi ezaugarri zehatz entzumen desGAITASUNA** duten ikasleengan:

- **Ahozko lengoaiaren zailtasunak edo mugak izan ditzakete**. Beraz, ezinbestekoa izango da beste kodearekin (ez ahozkoa) jarraitzea edo haren garapenarekin txandakatzea.
- **Zeinuen Hizkuntza pertsona gorren hizkuntza natural bat da komunitate gorrari erabateko komunikazioa ahalbidetzen diona**, pentsamendurako tresna bat izateaz gain. Eskuen keinuen bitartez espazioan ikusizko izaera duen lengoia bat da, eta haren osieran faktore historiko, kultural, linguistiko eta sozialek parte hartzen dute [\(7/2007. legea, 4. artikulua\)](#).

KOMUNIKAZIOA

Entzumen desGAITASUNA duten pertsonen komunitatea ahozko hizkuntza eta zeinuen hizkuntza uztartuz komunikatzen da.


Hauek dira zeinuen hizkuntzak (LSE) dituen ezaugarriak:

- **Zeinua erabiltzen duten pertsona gorren hizkuntza naturala da**.
- **Keinuen bidez erreproduzitzen den hizkuntza bat da eta ikusmenaren bidez hautematen da**. Hura ikasteko ezinbestekoa da trebetasun espezifiko zenbait indartzea, esate baterako, arreta, ikusmen diskriminazioa edo eskuzko abilezia.
- **Ez da hizkuntza unibertsala**, komunitate bakoitzak berea garatu du.
- Ez da mimoa, **LSE lengoia eskuen mugimenduekin eta ezpainen mugimenduekin sortzen da**, eta buruaren, sorbalden, mihiaren eta aurpegiko muskuluen ekintzak eragina dute.
- **Berezko gramatika du** eta bere arau morfo-sintaktikoak ditu, eta ez da egonkorra, aitzitik, zeinu berriak sortzen dira eta edozein hizkuntza bizi bezalaxe aldatu egiten da.



KOMUNIKAZIORAKO ZENBAIT JARRAIBIDE

- **Arreta bereganatzea: komunikazio bat finkatu aurretik, pertsonaren arreta lortu behar dugu leunki.** Horretarako, beste pertsona ukitu egin daiteke kontuan izanik besoaren goialdean, besoan eta sorbaldan egin daitekeela hori. Ez dago baimenduta bizkarrean edo buruan ukitzea, horrek eragin dezakeen izua dela medio. **Urrun baldin bazaude, besoekin deitu daiteke arreta, mugimendu nabarmenak eginez,** adibide batera, zorua kolpekatuz dardarak suma ditzan edo gela bateko argiak itzali edo piztuz.
- **Elkarriketa ziurtatu.** Ulermen eta komunikazio maila ona lortzea oso garrantzitsua da komunitate gorraren kasuan. Hori dela eta, sarritan erabili ohi da "ulertzen" zeinua elkarriketa berean.
- **Erabili hiztegi erraz, zuzen eta egokia,** behar bezala ahoskatuz, nabarmenegi aritu gabe, ahoa estali gabe
- **Bilatu argiztapen ona** eroso komunikatzeko aukera ematen duena.
- Pertsona gorra esaldia ulertzen ez baldin badu, **erabilitako egitura edo hitzak aldatzea gomendatzen da** (sinonimoak).
- **Ikusizko kontaktua.** LSE lengoaia ikusizkoa eta espaziala da. **Begirada kentzeak interesik eta begirunerik eza adierazten du.**
- **Informazioa partekatu.** Oso ohikoa izaten da komunitate gorreko kideen artean, **izan ere, entzuten duten pertsonekin kontaktuan daudenean askoz ere zailagoa egiten zaie informazio erlatiboa eskuratzea.**
- **Eskuak eutsi.** Zeinuak egiten ari den pertsona bati eginez gero, ekintza oldarkortzat hartzen da, hitz egiten ari den norbaiti ahoa estaltzearen parekoa.
- **Bilatu beti egoera estrategiko bat.** Adibidez, kirol saioan beren bizkarra hormaren aurka egotea bilatzen dute beti, **espazioaren gaineko ikuspuntu ona izan eta han gertatzen dena hobeto kontrolatzeko.** Ikasgelen kasuan, aldi berean, mahai biribilak lehenesten dira, bilkura batean pertsonekin egotean ikusizko kontaktua hobeto mantentzeko.
- **Txaloak.** Bi eskuak buruaren gainetik jasoz egiten da txalo eta eskuak eskumuturrak biratuz mugituta. Ez du inolako zentzurik es-



Kirol anitza FGDA

- kuak elkarren aurka zartatuz txalo egiteak, ez baitute entzuten.
- **Komunitate gorreko pertsonak, era berean, zeinu bat izaten dute "goitizen" modura,** beren berezitasunen batekin lotutakoa, bere ohiko izenetik apartekoa.
- **Ez egin oihu.** Kontrako efektua lor daiteke, izan ere, oihu egitean gure aurpegia sumindu egiten da, eta pertsonak gaizki uler dezake esan nahi diegun hori. Mihiaren irakurketa ere zaildu egiten da.
- **Patxada mantendu, eritmo ertain batean hitz egin** eta komunikatu ahal izateko estrategia egokiena hautatzen saiatu.
- **Ahoa garbi izan, objekturik gabe, jakirik gabe.**
- **Mihiaren irakurketa eragozten duten mugimenduak ez egin,** esate baterako, burua biratzea, bizkarra ematea, etab.
- **Keinu errazak erabili lagungarri modura,** ikusizko erakusketetan eta idazketan.
- **Zeinuen lengoiako interprete bat tartean baldin bada, desGAITASUNA duen pertsonarengana zuzendu behar gara, ez interpretearengana.**

5. EGOKITZAPEN-IRIZPIDEAK

5.1. Instalaziorako sarbidea

Instalazioen irisgarritasunari dagokionez, **pertsona guztientzako Irisgarritasun Unibertsal eta diseinuzko irizpideak** bete beharko lirateke. Jarraian zenbait adibide aipatuko ditugu:

- Instalazio guztietan seinaleztapen unibertsal egokia izatea, edozein pertsonak espazioak eta erabilerak erraz ulertzeko moduan.
- Harreran pertsona gorra behar bezala informatzeko aukera eta irtenbideak egon daitezela, begizta magnetikoak egoteaz gain hala behar duten pertsonentzat.
- Segurtasun-sistemako alarmak egotea edo aldagela eta bainugeletan alerta-sistema bat egon dadila, ikusizko nahiz soinu bidezkoa.

5.2. Espazioa

Kontuan izan indarreko arauak ([gaur egun, UNE-EN 60118-4:2016+A1:2018](#)), inguruneari eta premia teknikoei dagokienez.

Komunikazio unibertsala

Pertsona gorrekin komunikatzeko modua kontuan izan behar da:

- Jakina, bere arreta bereganatu eta begietara begiratu.
- Posible izango balitz, zeinuen hizkuntzako interpreteta egon dadila.
- Edukiak azpigituluak erabiliz egokitu.
- Bestelako baliabide teknologikoak, esate baterako, begizta magnetikoak edo FM igorgailuak.
- Egunerokotasunean komunikatu ahal izateko gailu teknologikoak, esate baterako, mugikorrak, tabletak, ordenagailuak, etab.
- Idazketa bera besterik gabe.
- Irakurketa erraz eta sinplifikatua.

Aurretiaz esan dugun moduan, guztia erabiltzailearen ezaugarrien eta jarduera motaren arabera da (kirol jardunak, ikus-entzunezko edukiak, bilkurak, jardunaldiak, etab.).

Pertsona gorrentzat espazioak egokitzeke elementuak, besteak beste:

- Ohartarazpenerako argi-seinaleak: sute-irteerak, alarmak, etab. (entzute bidezkoak ez ezik, argi bidezkoak izan beharko lirateke)
- Seinaleztapena sarbide eta komunetan, pertsona gorra larrialdi edo premia kasuan komunikatu ahal izateko.

Laguntzarako teknologia eta produktuak

- Begizta magnetikoa (indukzio-lazoa)

Begizta magnetikoa laguntzarako produktu bat da, inguruan entzute bidezko irisgarritasuna hobetzeko aukera ematen duena, soinu bidezko informazioaren eta lengoaiaren pertzepzioa edozein espaziotan hobetzeko aukerarekin batera.

Gailu horri esker **audiofonoak edo kokleako inplanteak erabiltzen dituen pertsonak** informazioa zuzenean jasotzen du zaratak kutsatutako espazioetan, edota solaskidearekiko distantziak mezuaren ulergarritasuna oztopatzen duen eremutan, haren presentzia hura identifikatzeko irisgarritasun-ikurrarekin adieraziz.

Airetik belarriko protesira transmititzen den soinua degradatu egiten da erreberberazioaren, hondoko soinu giroaren eta emisio-iturri arteko distantziaren ondorioz. Protesietan mikrofono oso onak izan arren, jasotzen duten soinua airean barreiatutako uhin akustikoen bidez iristen dena da.

- FM igorgailuak

FM sistemak igorgailu batekin hornitutako ekipoak dira. Ekipo horiek soinua igortzen duen pertsonaren edo hura igortzen den lekuko soinu bidezko seinalea jasotzen dute, maiztasun handiko uhinen bidez hartzaile bati transmitituz. Hartzaile hori audioko sarrera zuzen batetik edo indukzio magnetiko bidez konektatzen da audiofonora T posizioan.



Kirol anitza FGDA

5.3. Kirol materiala

Erabilitako kirol materiala **ohiko materiala izan daiteke, soinu elementuak izan ezik**, txistua kasu. Lkasle gorren bat izanez gero **ikusizko ikusmen elementuren bat erabili behar dugu**, esate baterako, zapi bat, argi bidezko abisuak, eskua mugitzea.

5.4. Araudia

Araudia ez dago aldatu beharrik. Aldatzen dena zenbaitetan erabiltzen diren soinu elementuak dira, esate baterako: irteerak atletismoan edo igeriketan, taldeko kiroleko epaileak, etab.

Elementu horiek ikusizkoak izan behar dira, jarraian aipatuko dugun eran.

5.5. Orientabide didaktikoak

Hauek dira Aragón eta Valdiviesok 2007an iradokitzen zizkiguten orientabide metodologikoak:

KIROLA EZ DA PERTSONA GORRAREN
BALDINTZA FISIKORA EGOKITU BEHAR,
HAREN GORPUZKERARI DAGOKIONEZ
ZENTZUMENEO DESGAITASUNIK EZ DUTEN
PERTSONEN BERDINA BAITA.
HALERE, JARRAIAN, SAIOAK ERRAZTEKO
OINARRIZKO ZENBAIT PROZEDURA
PROPOSATZEN DIRA.

- Begi bistakoa bada ere, pertsona gor batekin komunikatzeko metodorik onena hark bere hizkuntza erabiltzea da, zeinuen hizkuntza.
- Funtsezkoa da baliabide didaktiko osagarriak erabiltzea informazioa emateko. **Arbela la-**

gungarri izan daiteke ariketen ulermena hobetzeari begira; berea ez den hizkuntza bat erabiltzen denean, edozein laguntza da onuragarri.

- **Soinuen erabilera baztertu egin behar da eta ikusizko estimuluak baliatu behar dira horien ordez**, horregatik, koloredun zapiak erabiltzea oso lagungarri izan daiteke.
- **Zapiak epaileek erabil ditzakete txistuen ordez, edo haiekin batera.** Edo entrenatzaileak ere zapien kode bat izan dezake, kolorearen arabera, jarduerak kontrolatzeko xedez.
- Garrantzitsua **ikusizko informaziorako kodeak finkatzea.**
- **Antolaketa funtsezkoa da hala eskola kirolean nola Gorputz Heziketako eskoletan, eta batez ere gazte gorrekin, ariketa gutxi egon daitezela proposatzen dugu** izan ere, ariketa berri bat azaldu behar den bakoitzean denbora asko galtzen delako. Horretarako, saioa ongi antolatu behar da, egokia da aurea hartu eta alde aurretik azalpenak ematea eta, are, baliabide baliagarria izan daiteke piktograma eta grafikoak erabiltzea, ariketa ulertzea errazten baldin badute.

5.6. ENTZUMEN desGAITASUNA duten pertsonentzako kirol modalitateak

International Committee of Sports for the Deaf (ICSD) erakundea Europa mailan “Deaflympics” izeneko isilpeko kirol lehiaketak antolatzen dituen erakundea da, eta hiru helburu ditu nagusiki:

- **Munduko gor guztien artean gorputz heziketa orokorrean eta kirol jarduna zehazki garatu eta kontrolatzea.**
- **Herrialdeen artean harremanak bultzatzea gorrentzako kirolak eginez eta horien eragina erabiliz ezezagunak diren kirol horietan gidatu eta hasteko.**
- **Gorrentzako Munduko Joko, txapelketa nazional zein eskualdekoen ospakizun erregularrak gainbegiratzea.**

Federazio horren leloa da “**Kirolaren bidezko berdintasuna**”.

Nazioarteko Batzorde Paralinpikoa eratzeke prozesuan zehar hainbat akordio erdietsi ziren bien artean:

1. **CISS/ICSD izeneko kirol arloko agintaritzaren modura hartzen da, gorrei so.**
2. **Deaflympics izenekoek Joko Paralinpikoen estatus bera dute.**
3. **Gorrentzako kirol federazio nazional guztien autonomia eta independentzia sustatu eta errespetatu behar dira.**
4. **Kirol egokiturako funtsak bere zati proporzionalean iritsi beharko lirateke CISS/ICSD erakundera.**

Gaur egun, kirola pertsona gorraren baldintza fisikora ez dagoela egokitu beharrik uste da, izan ere, haren gorpuzkera entzuteko arazorik ez duten pertsonen berdina da; halere, egokitzapen txikiak behar dituzte, esate baterako, **ikusizko laguntzak epaileen adierazpenetan lehiaketan dandenean**, baina klub normalizatuek kirolari gorra oso kasu zehatz eta espezifikotan onartzen dute, eta sekula ez die ofizialki praktikatzeko aukerarik ematen.

Abenduaren 20ko 1835/91 Errege Dekretua, Espainiako Kirol Federazioei eta Kirol Elkarleen Erregistroari buruzkoa, agertu zenean **gorrentzako Kirol Federazio bat (FEDS)**, eratzeke premia aitortu zen, Kirolari buruzko 10/1990 Legearen osagarri gisa. 1993an Kirolaren Kontseilu Nagusiko Zuzendaritza Batzordeak hura onartu zuen eta, horren ondorioz, Kirol Federazioaren Erregistroan inskribatu zuen, 48 zenbakiarekin. Horrela, gorrentzako kirola ofizialki arautzen duen legeria bat agertu zen. Munduko Jokoak egiten dituzte udan eta neguan eta Olinpiada isilak lau urtetik behin.

Gainerako desGAITASUNETAN bezalaxe, jarduek fisikoa edo kirola egiteak ez dakar soilik onura fisikoa, baizik eta pertsona gorraren izaeran aldaketak bortitza dakar, inguruan duen giza ingurunearekiko dagoen hesi bat botaz, kolektibo horretan egon ohi diren isolamendu eta bakardadeko ezaugarriak desagertuz.

Entzumen desGAITASUNA duten pertsonentzat aitortutako kirol modalitateak (EBO, 1994):

HAUEK DIRA 16/2006 DEKRETUAN , JASOTZEN DIREN KIROL MODALITATEAK

urtarrilaren 31koan, Euskadiko Kirol Federazioei buruzkoan

Kirol Federazioen Dekretuko kirol modalitateak

Urpeko jarduerak, Xakea, Atletismoa, Kirol dantzak, Badmintona, Saskibaloia, Eskubaloia, Billarra, Boccia, Boloak, Mendi-lasterketak, Txirrindularitza, Curlinga, Neguko kirolak (Eski alpetarra, Iraupen-eskia, Snowboarda), Ekitazioa, Eskalada, 5-futbola, 11-futbola, Areto-futbola, Gimnasia Erritmikoa, Golfa, Herri kirolak, Hockeya, Karatea, Borroka eta Sanboa, Mendia, Igeriketa, Padela, Euskal Pilota, Arrantza, Petanka, Piraguismoa, Powerliftinga (halterofilia), Arraunketa, Errugbia, Slaloma, Surfa, Taekwondoa, Tenisa, Mahai-tenisa, Arku-jaurtiketa, Tiro olinpikoa, Toka, Triatloia, Vela, Boleibola, Waterpolo.

[16/2006 DEKRETUA, urtarrilaren 31koa, Euskadiko Kirol Federazioena.](#)

Nazioarteko Batzorde Paralinpikoak (IPC) eta Estatuko Federazioek (FFEE) aitortutako kirol espezialitateak kontsulta daitezke [hemen](#).

[CISS](#), [FEDS](#).

“ZER AXOLA DU BELARRIKO GORTASUNAK BURUAK ENTZUTEN BADU;
EGIAZKO GORTASUNA, GORTASUN SENDAEZINA
BURUKOA DA”
(Victor Hugo)



Eskalada inklusiboa. Gipuzkoako Mendi Federazioa.